

< Hondarribia-Hendaia >
1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
14
15
16

Historia zapore bizia

# Hondarribia

Sabor a historia





Hondarribiaren siluetak dei egiten die bisitari eta bidaiariei. Dei zaharra da, sakon bezain zirraragarria, hari so dagoena gatibatzen duena. Erdi Aroko gazteluak eta Ondare Monumental izendatutako harresiek dotoretzen dute irudia.

Hondarribia hiri lasai eta eskuzabala da, Bidasoa ibaiaren eta Kantauri itsasoaren arteko lotunean, Jaizkibel mendiaren eta Txingudiko badiaren babesean, arnasa hartzen duena. Mugaldeko kokaleku estrategikoa izaki, haren historia setio, bake-hitzarmen, errege-erreginen ezkontza, printzesa truke eta halakoez beterik dago.

Hiru "arima" omen ditu Hondarribiak: hiri harresiduna, Erdi Aroko plano eta jauregi dotoreak dituena, arrantzaleen auzoa, lorez beteriko balkoi alaiak dituzten koloretako etxe tipikoek ezaugarritua, eta nekazaritza ingurua, Jaizkibel mendiko baserriek osatua.

Baina Hondarribia ezer izatekotan hiri bizia da. Tradizioen usaina dario eta gozamenerako hamaika ospakizun atontzen ditu: Ostiral Santuko prozesioa, arrantzaleen errituak, hala nola, Karmengo Amari egindako eskaintza edota Kutxa Entrega, Hondarribiko Bandera traineruen estropada eta Alardea, irailaren 8an, 1638ko setioan lortutako garaipena oroitzen duena.

Idazle, margolari, bidaiari ameslari, errege-erregina… Asko dira mendeetan zehar hiriaren argiak, zaporeak, jaiek, kantuek, naturak eta historiak harrapatu dituztenak.

Hondarribiak liluratuko zaitu.

La silueta de Hondarribia, lanza una llamada a turistas y viajeros. Una llamada antigua, profunda y vibrante que atrae inevitablemente a quien la contempla, marcada por su castillo de origen medieval y su majestuoso recinto amurallado declarado Conjunto Monumental.

Hondarribia es una acogedora y tranquila ciudad que respira a orillas del río Bidasoa, protegida por el monte Jaizkibel y la bahía de Txingudi y abierta al mar Cantábrico. Su carácter estratégico y fronterizo, han dado lugar a una historia repleta de asedios, tratados de paz, bodas reales, intercambios de princesas...

Sobre Hondarribia se ha dicho que posee tres "almas": la ciudad amurallada, con su trazado medieval y elegantes palacios, el barrio de los pescadores con sus típicas y coloridas casas, de alegres y floridos balcones y por último, su entorno rural con los caseríos repartidos por el monte Jaizkibel.

Pero Hondarribia es ante todo una ciudad viva que mantiene su aroma a tradición, disfrutando de sus numerosos festejos: la solemne procesión del Viernes Santo, los ritos de los pescadores como la ofrenda a la Virgen del Carmen o la "Kutxa entrega", las traineras disputándose la Bandera de Hondarribia y el "Alarde" que cada 8 septiembre conmemora la victoria en el asedio de 1638.

Escritores, pintores, viajeros soñadores, miembros de la realeza…. son muchos los que a lo largo de los siglos se han dejado tentar por su luz, su sabor, sus festejos, sus cantos, su naturaleza y su historia.

Hondarribia te sorprenderá.

## GASTRONOMIA

Hondarribiak berebiziko gastronomia-eskaintza dauka, bertako produktuaren kalitate handia, ohitura eta berrikuntza oinarri dituena. Pintxoak hartzeko tabernak, terrazak eta egile-jatetxe zein tradizionalak, Michelin izarra tartean, Gipuzkoako gourmet joera berrien erreferente dira. Txakolina (fruitu lurrineko ardo zuri gaztea) ekoizteko mahastiek leku aipagarria dute hirian. Arrain zaporetsuak dastatzeko lagungarri onena da edari preziatua.

## GASTRONOMÍA

Hondarribia ofrece una gran variedad de productos gastronómicos basada en la alta calidad del producto local, la tradición y la innovación. Sus bares de pintxos, terrazas y restaurantes tradicionales y de autor, incluyendo una Estrella Michelín, son referentes en las nuevas rutas gourmet de Gipuzkoa. También los viñedos de Txakolí (vino blanco joven y afrutado) cobran protagonismo en la ciudad, el mejor acompañamiento a los sabrosos pescados.



## AISIA ETA DIBERTSIOA

Hondarribiak denentzako moduko dibertsioa, kultura eta aisia eskaintzen ditu. Aukera zabala da, hala nola, uretako jarduerak, urpekaritza, aireko turismoa, tren turistikoa, hiriko bisita gidatuak, pilota partidak edota golfa...
Kultur-agenda oparoa du hiriak. Kontzertuak, erakusketak, feriak, gastronomia lehiaketak, kirol ekitaldiak ... izaten dira urte osoan zehar...

## OCIO Y DIVERSIÓN

Hondarribia ofrece diversión, cultura y entretenimiento para todos los públicos. Un amplio abanico de posibilidades, actividades náuticas, submarinismo, turismo aéreo, tren turístico, visitas guiadas por la ciudad, partidos de pelota, golf...
Una intensa agenda cultural ofrece a lo largo de todo el año conciertos, exposiciones, ferias, concursos gastronómicos, eventos deportivos...

## JAI ETA OSPAKIZUNAK

Hondarribia, bere horretan, antzeztokia da urte osoan. Haren kale eta plazetan kultur eta jai ekitaldi ugari izaten dira.

**Aste Santua**
- Aste Santuko prozesioak
- Erlijio-musika kontzertuak

**Maiatza**
- Nazioarteko Gitarra Jaialdia
- Herri Kanta Jaialdia
- **Maiatzak 15:** San Isidro Eguna

**Ekaina**
- Erdi Aroko Azoka
- **Ekainak 29:** San Pedro Eguna

**Uztaila**
- **Uztailak 16:** Karmengo Ama Birjina
- **Uztailak 25:** Kutxa Eguna

**Abuztua**
- Herri Giroa
- (Eskulangintza azoka eta herri kirolak)
- Hondarribia Hiria traineru-estropada

**Iraila**
- **Irailaren 6tik 11ra:** Jai Nagusiak.
- **Irailak 8:** Hondarribiko Alardea.

## FIESTAS Y CELEBRACIONES

Hondarribia es un escenario en sí a lo largo del año. En sus calles y plazas tienen lugar diferentes eventos culturales y festivos.

**Semana Santa**
- Procesiones de Semana Santa
- Conciertos de música Sacra

**Mayo**
- Festival Internacional de Guitarra
- Festival de Canto Popular
- **Día 15:** Festividad de San Isidro

**Junio**
- Mercado Medieval
- **Día 29:** Festividad de San Pedro

**Julio**
- **Día 16:** Virgen del Carmen
- **Día 25:** *Kutxa* Eguna

**Agosto**
- Herri Giroa
- (Feria de artesanía y deporte rural)
- Regata de traineras Ciudad de Hondarribia

**Septiembre**
- **6 al 11 de septiembre:** Fiestas Patronales.
- **Día 8:** Alarde de Hondarribia.

Lege gordailua | Depósito legal SS - 957 - 2016

# BISITA GIDATUAK | VISITAS GUIADAS

Ibilaldiak hirian zehar | Paseos por la ciudad
Tren berdea | Tren verde
Abentura Guadalupeko Gotorlekuan | Aventura en el Fuerte de Guadalupe







**ARMA PLAZA**
Kultur eta turismo informazio gunea
*Centro de información cultural y turística*
Arma Plaza, 9 | 20280 Hondarribia
T. (00 34) 943 64 36 77 | (00 34) 943 64 46 23
info@armaplaza.eus | armaplaza@armaplaza.eus | **www.armaplaza.eus**



**BIDASOKO TURISMO BULEGOA**
***OFICINA DE TURISMO DE BIDASOA***
Minatera 9, Puerto Deportivo
20280 Hondarribia
T. (00 34) 943 64 54 58 | turismo@bidasoa-activa.com
**www.bidasoaturismo.com**

HONDARRIBIKO UDALA
Turismo Saila
Interreg POCTEFA
Argitalpen honek FEDER funtsen finantzaizioa jasotzen du
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD
ARMA PLAZA FUNDAZIOA
HONDARRIBIA Turismoa
CTP
Red de Ciudades y Villas Medievales



## 17 HONDARTZA ETA KIROL PORTUA

Hondar fineko hondartza da. Inguru lasai, seguru eta heltzeko erraza da, uretako jarduera ugari egiteko parada ematen duena.

### PLAYA Y PUERTO DEPORTIVO

Una playa de fina arena en un entorno tranquilo, seguro y accesible con una variada oferta de actividades náuticas.



## 18 KAI BERRIA

Bertako arrantza-flota euskal kostaldeko garrantzitsu eta adierazgarrienetakoa da. Arrantzarako teknika iraunkor eta tradizionalak baliatzen ditu.

### PUERTO PESQUERO Y DE REFUGIO

La flota pesquera es una de las más importantes representativas de la costa vasca, manteniendo un arte de pesca sostenible y tradicional.




## 19 SAN TELMO GAZTELUA ETA HIGER LURMUTURRA

Asturiagako babes portuaren gainean dagoen gaztelu txiki honi Piraten Gaztelua ere deitzen diote, besteak beste. Filipe II.ak eraiki zuen 1598an, portuan zeuden ontziak pirata eta kortsarioengandik babesteko. Egun, pribatua da. Higer lurmuturrean Itsasargia dago.

### CASTILLO DE SAN TELMO Y CABO DE HIGUER

A este pequeño castillo situado sobre el puerto refugio de Asturiaga se le conoce, entre otros nombres, como Castillo de los Piratas. Fue construido por Felipe II en 1598 con el fin de salvaguardar a las naves que fondeaban en el puerto y eran asaltadas por los piratas y corsarios. Actualmente, es propiedad privada. En el Cabo de Higuer, se encuentra el Faro.





### JAIZKIBEL MENDIA

Natura 2000 Sarean dago. Paregabeko ingurune naturala da. Monumentu megalitikoak (trikuharri eta harrespilak), egitura geologiko apartak, harearrizko kala lasaiak eta bioaniztasun handiko paisaia ikus daitezke bertan.

### MONTE JAIZKIBEL

Forma parte de la Red Natura 2000. Un entorno natural único donde encontramos monumentos megalíticos (dólmenes y cromlechs), formaciones geológicas excepcionales, tranquilas calas de roca arenisca y un espacio paisajístico con una gran biodiversidad.



## 21 GUADALUPEKO GOTORLEKUA

XX. mende hasierako eraikin hau Euskadiko gotorleku garaikide handiena da. Bisita gidatuak fosoa, pabilio ofizialak, polborinak... ezagutzeko aukera ematen du. Inor hotz utziko ez duen bisitaldia.

### FUERTE DE GUADALUPE

De principios del s. XX, es la mayor fortificación contemporánea de Euskadi. Su visita guiada permite descubrir los fosos, los pabellones de oficiales, los polvorines,… una visita que no deja indiferente a nadie.





## 20 GUADALUPEKO SANTUTEGIA

XVI. mendean egin, eta, gerora, zenbaitetan berreraikia. Egungoa XIX. mendekoa da. Herritarrek Guadalupeko Ama, herriko zaindaria, gurtzen dute bertan. Gipuzkoako zortzi ama birjina beltzetako bat da. Urtero, irailak 8an, hondarribiarrek 1638ko setioan esku hartzeagatik orduan egindako esker oneko botoa berritzen dute hara joanda. Kanpoko aldean, Txingudiko badiaren ikuspegi paregabea dago.

### SANTUARIO DE GUADALUPE

Construido en el s. XVI y reconstruido en varias ocasiones, siendo el actual del s. XIX. En su interior, se venera a la Virgen de Guadalupe, patrona de la ciudad, una de las ocho vírgenes negras de Gipuzkoa. Todos los años, el 8 de septiembre, los hondarribiarras renuevan el voto de agradecimiento que le hicieron en 1638 por su intercesión durante el asedio de ese año.
Desde el exterior se disfruta de una magnífica vista de la bahía de Txingudi.

## 22 SANTIAGOTXO ERMITA

XII. mendean eraikia dela uste dute adituek, horren arabera, Hondarribiko zaharrena litzateke. 1930 eta 1969an zaharberritu zuten. Santiago Apostoluaren XII. mendeko irudia zegoen bertan. Erromes jantzia eta aurpegia belztua izaki "Santiago beltz" ere deitzen zioten, baina lapurtu egin zuten.

### DONEJAKUE BIDEA

Kostako Donejakue Bideko lehen etapa, UNESCOk 2015ean Mundu Mailako Ondare izendatutakoa. Erromesak *Santiagotxo*ko ermitan geldialdia egin dezake Guadalupeko Santutegirantz jarraitu eta Jaizkibeldik Pasaiara heldu aurretik.

### ERMITA DE SANTIAGOTXO

Se cree que data del s. XII con lo cual sería la más antigua de Hondarribia. Fue reformada en 1930 y 1969. La ermita guardaba una imagen de Santiago Apóstol del s. XII que era conocida por el nombre de "*Santiago beltz*" por su cara ennegrecida y que vestía como peregrino.

### CAMINO DE SANTIAGO

Primera etapa del Camino de Santiago por la Costa declarado Patrimonio Mundial de la Unesco en el año 2015. El peregrino podrá hacer un alto en la ermita de *Santiagotxo* antes de continuar hacia el Santuario de Guadalupe y avanzar por el monte Jaizkibel hacia Pasaia.






## 23 JAITZUBIAKO PADURA

Gipuzkoako padura-inguru nabarmenena da. 70 hektarea dituen hezegune bakan eta baliotsu hau garrantzi ekologiko handiko ingurune naturala da. Hegazti migratzaileen babesleku baliotsua da. 250 espezietik gora behatu dira bertan. Ornitologoen paradisua da.

## MARISMAS DE JAIZUBIA

El mejor ejemplo de medio marismeño existente en Gipuzkoa. Con una extensión de más de 70 hectáreas, este singular y valioso humedal es un espacio natural de reconocido valor ecológico. Es un importante refugio de aves migratorias, habiéndose observado más de 250 especies. Un verdadero paraíso para los ornitólogos.







## XENDAK

Jaizkibel mendiak beso-zabalik hartzen ditu ibiltariak. Bere bideetan egitura geologiko aberatsen unibertsoa gordetzen du, itsasoa beti lagun. Kostaldeko Talaia bideak (GR-121) hareharri eta egitura geologiko apetatsuak lehen aldiz ezagutzeko aukera ematen du. Abenturazale handienek ondo dakitenez, Hondarribia penintsulako ibilaldi luzeenetako baten hasiera edo amaiera da: Pirinioetako Hegoaldeko Ibilbidea (GR-11).

## SENDERISMO

El monte Jaizkibel se abre ante el caminante para permitirle descubrir a través de sus senderos todo un universo de gran riqueza geológica, con el mar como constante compañía. El sendero Talaia (GR-121) que recorre la costa permite explorar sus areniscas y caprichosas formaciones rocosas. Para los grandes aventureros, Hondarribia es el principio o el final de una de las mayores travesías de la península: la Transpirenaica (GR-11).









## 1 ARMA PLAZA

Soldadu taldeek armak atontzen zituzten bertan. Hiriak, berriz, aldarrikapenak, harrerak, zezenketak eta bestelako jai herrikoiak egiteko baliatzen zuen. ARMA PLAZA eraikinean hiriko eskaintzen berri ematen da.

### PLAZA DE ARMAS

Servía a la guarnición para el ejercicio de las armas y a la ciudad para proclamaciones, recepciones, corridas de toros y otros festejos populares. En el edificio ARMA PLAZA se informa sobre lo que ofrece la ciudad.










## 2 KARLOS V.a GAZTELUA

Nafarroako Antso Abarkak eraiki zuen. Handitu eta gotortu, berriz, Nafarroako Antso Jakitunak, 1190ean. Aurrealdea Karlos V.aren garaikoa da. Gaztelu zein jauregi izan zen aldi berean. Tropentzako gelak, biltegiak, munizio eta bolbora biltokiak, ziegak eta zalditegiak zituen sei solairutan banatuta.

### CASTILLO DE CARLOS V

Su construcción se atribuye a Sancho Abarca de Navarra; su ampliación y fortificación en 1190 a otro rey navarro, Sancho el Sabio. La sobria fachada corresponde a la época de Carlos V. Era a la vez castillo y palacio. Contaba con seis plantas para aposento de las tropas, almacenes, depósito de munición y pólvora, calabozos y caballerizas.







## 3 JASOKUNDE ETA SAGARRONDOKO AMA BIRJINAREN ELIZA NAGUSIA

XV eta XVI. mendeetan eraiki zuten lehenagoko harresien zaharkinen gainean. Berpizkundeko eranskinak dituen gotiko estiloko arkitektura ederra du. Gaztelura begira dagoen fatxada da eraikinaren zati zaharrena. Bertan daude arku konopialdun aurrealdea eta hiriaren lehenengotako armarria. Nabarmena da, halaber, barrokoko kanpandorrea (XVIII. mendekoa), Francisco de Iberok egina. Eliza honetan ezkondu ziren Maria Teresa Austriakoa eta Luis XIV.a, 1660an.

### IGLESIA PARROQUIAL DE SANTA MARÍA DE LA ASUNCIÓN Y DEL MANZANO

Fue construida, sobre fragmentos de antiguas murallas, en los siglos XV y XVI. De bella arquitectura, es de estilo gótico con añadidos renacentistas. En la fachada que mira al castillo se halla la parte más antigua del templo. En ella se encuentran una hermosa portada de arco conopial y el primitivo escudo de la Ciudad. Destaca, también, el campanario barroco (s. XVIII), obra de Francisco de Ibero. En esta iglesia se celebró la boda por poderes entre María Teresa de Austria y Luis XIV en 1660.

## 13 SANTIAGO KALEA

Auzoaren ernamuina da Madalen errebalarekin batera. Jatorrian Donejakue bideko erromesek zeharkatzen zuten hiriko lehen kalea zen.

### CALLE SANTIAGO

Junto con el antiguo arrabal de la Magdalena, son el origen de este barrio. Fue originariamente la primera calle de la ciudad por la que pasaban los peregrinos camino de Santiago.





## 12 SAN PEDRO KALEA

Hiriaren erdigune nagusia da. Kaleak, kostaldearen garai bateko ertzari segika, bihurgune itxura du ezkerraldean. *Zeria* Etxea da bertako eraikin zaharrena, 1575ekoa. Balkoien koloreak herriko arrantza-ontziak margotzeko erabilitakoen antzekoak dira.

### CALLE SAN PEDRO

Centro neurálgico de la ciudad. La calle forma una curva en su lado izquierdo siguiendo la antigua línea de costa. Su edificación más antigua es la actual casa *Zeria* y data del año 1575. Los colores de los balcones se asemejan a los utilizados para pintar los barcos pesqueros de la localidad.



## 14 ARRANTZALEEN KOFRADIA

1361. urtean sortu zuten, eta arrantzaleen bitartekari eta haien eskubideen babesle izatea du xede. Haren egoitza eraikin txikia da. Erdian arkua dauka, eta, gainean, Done Pedroren irudia.

### COFRADÍA DE PESCADORES

Fundada en el año 1361. Su función es la de velar e intermediar por los derechos de los pescadores. Su sede es un pequeño edificio con un único arco central, encima de uno de los cuales encontramos la figura de San Pedro.






## 15 KAI ZAHARRA

Garai batean moila izan zen. Bertatik hiriak izan dituen bi zabalkundeak beha ditzakegu. Mariñel itsasontzia du aldamenean, bertako ontziteriak izan duen egurrezko azkena.

### KAI ZAHARRA

Antiguo muelle desde el cual podemos apreciar a ambos lados los dos grandes ensanches que vivió la ciudad. Junto a este muelle se encuentra varado el barco Mariñel, último de madera de la flota local.





## 16 PORTUKO ELIZA

Madalen izenez ere ezaguna da. 1921ean hasi ziren eraikitzen. Gaspar Montes Iturrioz margolariaren freskoa dago bertan. Madalen errebalean zegoen eliza ordezkatu zuen.

### IGLESIA DE LA MARINA

Denominada también de la Magdalena su construcción se inició en el año 1921. Cuenta en su interior con un fresco del pintor Gaspar Montes Iturrioz. Sustituye a una antigua que se ubicaba en el arrabal de la Magdalena.






## 7 SANTA MARIA ATEA

Hiriak zituen bi sarreretako bat. Hainbat elementuk osatzen zuten, hala nola, zubi altxagarriak, guardia atala eta lubanarroak. Deigarria da bertan dagoen 1694ko hiriko armarria: Guadalupeko Ama du buruan; gainean, eguzki-erlojua; eta ezkerrean, Santa Mariako Kuboa, XVI. mendekoa.
Ongi etorria "*Hatxeroa*"ren eskulturak egiten du. Tropen aurrean joaten zen zapadorearen (gotorlekuetan lan egiten duen soldadua) oroitarria da.

### PUERTA DE SANTA MARÍA

Una de las dos entradas que tenía la ciudad. Se componía de diversos elementos, como puente levadizo, cuerpos de guardia, foso….. Llama la atención el escudo de la ciudad, del año 1694 coronado por la virgen de Guadalupe. Y sobre él, el reloj de sol. A la izquierda, el cubo de Santa María, del s. XVI.
Dando la bienvenida, destaca la escultura del "*Hatxero*", que representa al zapador (soldado que trabaja en las fortificaciones) que abría paso a las tropas.

## 6 APEZPIKU KALEA ETA PLAZA

Zaharrenetakoa da. Bertan dago Erdi Aroko Palencia Etxea edo Etxebestenea. Han jaio zen Don Cristobal de Rojas y Sandoval 1502an, Sevillako artzapezpiku, Karlos V.aren kapilau eta Santa Teresaren babesle ere izan zena.

### CALLE Y PLAZA DEL OBISPO

Es una de las más antiguas. En ella se encuentra la Casa Palencia o Echevestenea, de origen medieval. En ella nació Don Cristóbal de Rojas y Sandoval en 1502. Llegó a ser arzobispo de Sevilla, capellán de Carlos V y protector de Santa Teresa.



## 4 KALE NAGUSIA

Harbidean aurrera eginda landutako hagaburuak dituzten teilatu hegalak, burdin forjatuzko balkoiak eta armarriak beha daitezke etxeetan. Aipatzekoak dira barroko estiloko *Udaletxea* (XVIII. mendea), 1638ko setioko su-etena hitzartu zeneko *Casadevante Jauregia* (XVII) eta barroko estiloko *Zuloaga Jauregia* (XVIII).

### CALLE MAYOR

Recorriendo su bello empedrado se aprecian los aleros de sus casas con los canecillos tallados, balcones de hierro forjado y escudos. Destacan la *Casa Consistorial* de estilo barroco (s. XVIII), el *Palacio de Casadevante* (s. XVII) donde se negociaron los términos de la tregua del Sitio de 1638 y el *Palacio Zuloaga* de estilo barroco (s. XVIII).











## 5 PAMPINOT KALEA

Gaskoi jatorria du izenak. *Rameri Etxea* (XIII. mendea) dago bertan.

### FRANTSESAREN PUTZUA

XVI. mendekoa da. Putzuak behar-beharrezkoak ziren setioei aurre egiteko.

### CALLE PAMPINOT

Con nombre de origen gascón, en esta calle se localiza la *Casa Rameri* (s. XVII).

### POZO DEL FRANCÉS

Su construcción se remonta al s. XVI. Los pozos eran de vital importancia para resistir los asedios.









## 1 ARMA PLAZA

Soldadu taldeek armak atontzen zituzten bertan. Hiriak, berriz, aldarrikapenak, harrerak, zezenketak eta bestelako jai herrikoiak egiteko baliatzen zuen. ARMA PLAZA eraikinean hiriko eskaintzen berri ematen da.

### PLAZA DE ARMAS

Servía a la guarnición para el ejercicio de las armas y a la ciudad para proclamaciones, recepciones, corridas de toros y otros festejos populares. En el edificio ARMA PLAZA se informa sobre lo que ofrece la ciudad.









## 2 KARLOS V.a GAZTELUA

Nafarroako Antso Abarkak eraiki zuen. Handitu eta gotortu, berriz, Nafarroako Antso Jakitunak, 1190ean. Aurrealdea Karlos V.aren garaikoa da. Gaztelu zein jauregi izan zen aldi berean. Tropentzako gelak, biltegiak, munizio eta bolbora biltokiak, ziegak eta zalditegiak zituen sei solairutan banatuta.

### CASTILLO DE CARLOS V

Su construcción se atribuye a Sancho Abarca de Navarra; su ampliación y fortificación en 1190 a otro rey navarro, Sancho el Sabio. La sobria fachada corresponde a la época de Carlos V. Era a la vez castillo y palacio. Contaba con seis plantas para aposento de las tropas, almacenes, depósito de munición y pólvora, calabozos y caballerizas.









## 3 JASOKUNDE ETA SAGARRONDOKO AMA BIRJINAREN ELIZA NAGUSIA

XV eta XVI. mendeetan eraiki zuten lehenagoko harresien zaharkinen gainean. Berpizkundeko eranskinak dituen gotiko estiloko arkitektura ederra du. Gaztelura begira dagoen fatxada da eraikinaren zati zaharrena. Bertan daude arku konopialdun aurrealdea eta hiriaren lehenengotako armarria. Nabarmena da, halaber, barrokoko kanpandorrea (XVIII. mendekoa), Francisco de Iberok egina. Eliza honetan ezkondu ziren Maria Teresa Austriakoa eta Luis XIV.a, 1660an.

### IGLESIA PARROQUIAL DE SANTA MARÍA DE LA ASUNCIÓN Y DEL MANZANO

Fue construida, sobre fragmentos de antiguas murallas, en los siglos XV y XVI. De bella arquitectura, es de estilo gótico con añadidos renacentistas. En la fachada que mira al castillo se halla la parte más antigua del templo. En ella se encuentran una hermosa portada de arco conopial y el primitivo escudo de la Ciudad. Destaca, también, el campanario barroco (s. XVIII), obra de Francisco de Ibero. En esta iglesia se celebró la boda por poderes entre María Teresa de Austria y Luis XIV en 1660.